


HARRIKADIE


Poesia egunetako berripapera Ea-Bizkaia 2011ko uztailaren 15etik 17ra



BERBAN GORA ITURRIA **Poesia modernoaren bideetan**

Fito Rodriguez, Karmelo Landa, Gorka Arrese, Oier Guillan, Asier Sarasola, Beñat Sarasola, Leire Lopez Ziluaga, Miren Agur Meabe, Ibone Ibazeta, Joseba Tapia, Asier Ituarte, Ibon Irixoa, Iban Urizar, Ramontxo Vega, Jokin Irungarai, Jon Benito, Mikel Etxaburu, Karmele Igartua (gogoan), Elena Medel, The Soul Stompers, Maialen Lujanbio, Xabi Erkizia, Leire Bilbao, Maddi Oihenart, Jeremie Garat, Ramon Agirre, Inazio Tolosa, Jorge Rubio.

www.eakopoesiaegunak.com



gabriel arestiren
etxea

Uztailaren 15a, barikua

19:30ean, Udal aretoan
ARESTIREN ZUZENBIDE
DEBEKATUAREN
POETIKA

HIZLARIAK: Fito Rodriguez eta Karmelo Landa
GIDARIA: Gorka Arrese
ERREZITATZAILEAK:
Oier Guillan eta Asier Sarasola




Fito Rodriguez



Karmelo Landa



Gorka Arrese



Oier Guillan



Asier Sarasola



Beñat Sarasola



Leire Lopez Ziluaga




Miren Agur Meabe



Ibone Ibazeta



Joseba Tapia




Mikel Etxaburu



Elena Medel



Maialen Lujanbio



Jeremie Garat




Ramon Agirre



Eta tira eta tunba




Jon Benito



Karmele Igartua




The Soul Stompers



Xabi Erkizia



Inazio Tolosa



Jorge Rubio

Uztailaren 16a, zapatua

10:30ean, Udal aretoan
HARRIETATIK
ANFETAMINETARA:
20 URTE EUSKAL POESIAN

HIZLARIA: Beñat Sarasola
AURKEZLEA: Leire Lopez Ziluaga

13:00etan, Talan
BITSA ESKUETAN

HITZAK: Miren Agur Meabe
MUSIKA: Ibone Ibazeta

15:00etan, Herri-bazkaria Bedaroan

18:00etan, Apikalen
ETA TIRA ETA TUNBA
Joseba Tapia

22:00etan, Eako frontoi atzean
POEMEN BIZI-HARIAN

POETAK:
Jon Benito, Mikel Etxaburu, Elena Medel,
Karmele Igartua (in memoriam)
MUSIKARIAK: The soul stompers

23:00etan, Eako frontoi atzean
TXORI MUGARIAK
Maialen Lujanbio eta Xabier Erkizia

Uztailaren 17a, domeka

11:00etan, Beletxe elkartearen
TXINDURRIAK ETA
ARROSAK:
NIRE POETIKAREN BILA,
BOST EMAKUME
POETAREN BITARTEZ

HIZLARIA: Elena Medel
AURKEZLEA: Leire Bilbao


13:00etan, Eako moilan
KANTALDIA:
ESPERANTZAZ HAZIAK

Maddi Oihenart
MUSIKARIA: Jeremie Garat

15:00etan
Herri-bazkaria Natxituako bolatokian

17:00etan
Ermintxo hotelaren atzeko bedartzan
ZER EGIN POEMA BATEKIN

HITZAK ETA MUSIKA:
Ramon Agirre eta Inazio Tolosa



Leire Bilbao



Maddi Oihenart

Arestiren zuzenbide debekatua



Gabriel Arestik 1961ean idatzi zuen *Zuzenbide debekatua*. Hala ere, ez zuen argia ikusiko Susa argitaletxeak 1986an idazlearen obra guztiak kaleratu zituen arte. Ez da edozein poema, etena ekarri zuen Arestiren poetikara. Kezka soziala eta forma herritarren aldarrikapena modu berri batez agertu nahi izan zuen horrela. Gabriel Celayak *Rapsodia enskara* zentsurara aurkeztu zuen garaia da. Joxe Azurmendirekin izan zuen gutun-trukean ikusten denez, idazkera aldaraziko dio honek. Urte haietako go-goetak eta ondoriozko emaitza poetikoak izango dira hizpide.

HITZALDIA ETA ERREZITALDIA

HIZLARIAK: Fito Rodriguez eta Karmelo Landa

GIDARIA: Gorka Arrese

ERREZITATZAILEAK: Oier Guillan eta Asier Sarasola


ORDUA: 19:30ean

TOKIA: Udaletxean

Uztailaren 15a (barikua)



Harrietatik anfetaminetara: 20 urte euskal poesian



Hitzaldian Gabriel Arestiren *Harri eta herri* (1964) poema liburutik Xabier Montoiaren *Anfetamiña* (1983) liburuaren arteko euskal poesiarren hogei urteak aztertuko dira. Hainbatentzat garai hori da euskal poesia modernoaren zentroa osatzen duena, eta saioaren helburua garaiko joera, poesia molde eta enparauak konparatu eta kritikoki aztertzea izango da. Euskal poesiarren aldi hori nazioarteko eztabaida eta korrante poetikoen argitan irakurtzen ahaleginduko da bereziki.

HITZALDIA


HIZLARIA: Beñat Sarasola

AURKEZLEA: Leire Lopez Ziluaga

ORDUA: 10:30ean

TOKIA: Udaletxean

Uztailaren 16a (zapateria)



Pintura eta poesia



Jorge Rubiok (Bilbo, 1972) Arte Ederrak ikasi zituen, hainbat ekimenetako partaidea izan da, eta pinturaren baitako hainbat arlo eta teknika lantzen ditu. Eako hainbat etxetako leihoetan Poesia Egunen gaineko irakurketa pertsonala erakutsiko digu Rubio bilbotarrak, Eako leihoek kolore eta formen joko konprometituen bidez hitz egin dezaten. Aurrerantzean ere, beste zenbait artistak ildo beretik jarraitzea espero dugu.

Bitsa eskuetan

Bitsa, paradoxa bat. Bitsa, bizitzaren sintesia. Bitsa eskuetan, bizitza bistan. Arrosa kolorekoa al da bizitza? Gerizak ote dira maite ditugun hildakoak? Zapitxo intimoek zer garbitzeko, zer babesteko, zer ezkutatzeko balio dute? Barne-habitata berrantontzeko prozesu baten deskribapena Miren Agur Meaberen poemetan, Ibone Ibazetaren saxofoi-doinuz lagundurik.

ERREZITALDIA

POETA: Miren Agur Meabe

MUSIKARIA: Ibone Ibazeta

ORDUA: 13:00etan

TOKIA: Talan

Uztailearen 16a (zapatua)



SALMOA

Parentesi bat da nire gorputza
argibideak onartzen dituen
berrogeita zazpi urteko turmix bat da nire bihotza
kalatxorien moduan miau egiten dut
neure ezpainak haztatzean
part jaurti ditut portura zapata burdinkarak
ez zaitut nahi full time ez zaitut nahi full time
soilik you you you

...

aintza eta bakea lurrean
kale-kantoia jiratu eta batera
txori bat pausatu baitzait sorbalдан gloria
zure musu bat sorbalda biluzian egunsentian
hain handi eta eder eta on baitzaitut
ardagaia eta su-lama
gloria zu bedeinkatua zu eskerrak zuri ahuspez agur
oi neure erraldoi oi neure masai oi neure irlako moai


Miren Agur Meabe

HERRI-BAZKARIA

ORDUA: 15:00etan

TOKIA: Bedaroan

Uztailearen 16a (zapatua)



Eta tira eta tunba

KONTZERTUA

MUSIKARIA: Joseba Tapia

ORDUA: 18:00etan

TOKIA: Apikalen

Uztailearen 16a (zapatua)



Gabriel Arestik maitea zuen herri poesia, ezagun da haren obra askotan bertsolarien eragina ez ezik herri kantuen ere. Alderdi hau ere ahaztu nahi ez dugulako dator Joseba Tapia bere karlista taldearekin Apikalera *Eta tira eta tunba* aurkeztera. Tokia, ezin egokiagoa da, Ogellen gaineko jauregi honek gutxi bezala erakusten duelako karlisten eta liberalen arteko borrokaren ostean jaiotzen ari zen gizartearen parte batek nola begiratzen zion munduari.



Poemen bizi-harian



Jon Benitok (Zarautz, 1981) hogeitun urte besterik ez zituenean plazaratu zuen *Aingurak erreketan* (Susa, 2001) bere lehen liburua. Handik pare bat urtera *Orbel zaku bat* (Susa, 2003) plaquettea osatu zuen dozena bat poemarekin, baina bederatzi urte pasatu arte ez zuen argitara eman bere bigarren liburua: *Bulkada* (Susa, 2011). Egun, *Berria* egunkariak igandero literaturari eskaintzen dizkion orrialdeak idazten ditu. Bestalde, Gariren ahotsean entzun ditugu behin baino gehiagotan bere hitzak.

Mikel Etxaburu (Ondarroa, 1969), Magisteritza ikasketak izateaz gain, Euskal Filologian Dokorea da eta gaur egun HUIHEZIn Psikopedagogiako klaseak ematen ditu. *Zu zara orain txoria* (Elkar, 2011) da bere lehen poesia liburua, 2008 eta 2010 bitartean ondutako poemaz osatua, preso politiko moduan ziega batean igarotako urteetan.

Elena Medel Kordoban jaio zen 1985ean, egun Madrilen bizi den arren. Bi poema liburu argitaratu ditu *Mi primer bikini* (DVD, 2002) eta *Tara* (DVD, 2006), baita bi kaiera ere *Vacaciones* (El Gaviero, 2004) eta *Un soplo en el corazón* (4 de Agosto, 2007). Bere lana

antologia ugarian bildua dago, eta hainbat hizkuntzatarara itzulia izan da: alemana, arabea, esloveniera, ingelesa, italiarra, poloniera, portugesa eta suedierara, besteak beste. *El Paiseko* Madrileko edizioan artikuluak idazten ditu eta *La Bella Varsovia* aldizkariko koordinatzailea da.

The Soul Stompers soul eta R&B-aren jatorriak lantzen dituen talde bizkaitarra da. New Orleanseko soul-funketik hasita, The Meters-en ondand, Atlantic-eko soinuik klasikoenetaraino mugitzen da. 60ko hamarkadako musika afroamerikarreko banda instrumental handien erritmo gozoak oinarritzat hartuz, The Soul Stompers taldeko kideek beren ukitu berezia eransten diote musika mota horri.

Karmele Igartua (Aretxabaleta, 1959-2010) Bergarako Idazle Eskolako kidea zen. Ogibidez irakaslea zen, baina azken urteetan bere literatur lanengatik nabarmendu zen. 2007an *Hitzak orbainetan* (Euskaltzaindia-BBK Fundazioa) poema liburua plazaratu zuen eta handik bi urtera *Denbora enaren begaletan* (Pamiela) eman zuen argitara. Hirugarrena, *Itsaso kontra bat* (Pamiela, 2011), argitaratzeko prest utzi zuen hil aurretik.

ERREZITALDIA

POEMAK: Jon Benito, Mikel Etxaburu, Elena Medel eta Karmele Igartua (in memoriam).

MUSIKARIAK: The Soul Stompers

ORDUA: 22:00etan

TOKIA: : Eako frontoi atzean

Uztailearen 16a (zapatua)



BELAONTZIETAN

Igelen arrautzetan
gordetzen ditugu geure haurrak,
eguzkiak ura lurrintzen duenean
hodeietara eraman ditzan
gorde ditugun haurrak,
igelen arrautzetatik irten daitezen
hodei urdinetan.

Haize boladetan
askatzen ditugu geure ametsak,
gauetan putz egiten dugunean
hodeietara eraman ditzan
askatu ditugun ametsak,
gordetako haurrek lo egin dezaten
haize boladetan.

Belaontzietan
abiatuko gara gure haurren bila,
herri berri bat asmatzen dugunean
hodeietatik salto egin dezaten
gorde ditugun gure haurrek,
euria ariko duenean
berriro ere bildu gaitezen
belaontzietan.

Mikel Etxaburu

MATRIUSKA

Mutil meharra biluztean
haur izua ikusten da

haur izuaren azpian
animalia lokartua gotortu da

animalia lokartuaren baitan
buru bihoztua dago

buru bihoztuan
inork aurkitu ez duen irla bat

irla hartan
gehiegi biluztu behar ez duen mutila bizi naiz

Jon Benito

APARRETAN –2–

Eta, igual, apar zuria besterik ez nintzen,
olatuek nahi ahala izan, –ez izateko sekula–.

Igual, *apar* zuriak liluratu zintuen
zerbait ederra nintzelakoan
eta nirekin batera –bazinelakoan–
olatuetan murgildu zinen
ito arte
ni dastatzearren.

*aparra hutsaren aurrekoa.
Sortu orduko desegiten
den gai erakargarria.*

Igual,apar zuria besterik ez da izan
nire bizitzeko denbora

–izan eta ez izan–

olatuen kapritxora,
ito arte

–bizi ahaleginetan–.

Karmele Igartua

ARRAINA

Gure platerik gogokoenak lanketa berezia eskatzen zuen. Amonak bertikalean zabaltzen zuen arraina, eta nire etorkizuna irakurtzen zuen bertan.

Azal zaurituan arretaz zabaltzen zuen betegarria: *beriotzaren markak ezin dira zornetu*.

Bitartean, hitz egin egiten zidan. Oraindik umea nintzen; eskolatik bueltan, jateko zer zegoen galde-tzean, nire graziak milikatzen zizkidan eta esaten: *arrainak, udakoak bezalakoak*. Orduan hotz egiten zuen. Eta bazkalondoan elkarrekin esertzen ginena, elkarrekin ikusten genuen telebista, elkarrekin hartzen genuen arnasa arratsaldero.

Bizitzea, bion arteko ohitura zen.

Eta udan ernegatu egiten nintzen ikusten nuenean nola zihoan urertzean gora

urertzean behera:

haserretu egiten nintzen olatu batean galduko nuelakoan, hoztuko zelakoan edo minutu batzuez bere ondoan ez egote hutsagatik.

Bueltatzean, bere hamakan esertzen nintzen eta oinetako hondarra kentzen laguntzen zidan, poltsan nire argizariak bilatzen, edo kresala eta bekarrak desitsasten.

Negua, orain, atsegina da etxe honetan. Sartzean lasai aurkitu nahi izan zaitut, zure istorioak errepikatzen, garai onei irribarrez, beti lez, nire ume-tako ohiturei adi.

Baina orain ez zaude. Biok ez gara bizi, eta hotzak bizkarretik heltzen dit, eta kolpatu; hainbat gauzaz oroitzen da, beldur bainaiz berriro,

eta neure begiek

labain egiten didate eskuetan

umel

neguko arrainak bezala.

Elena Medel

PEZ

Nuestro plato favorito requería cierta preparación.

Mi abuela abría el pescado en vertical, leyendo mi futuro.

Sobre la superficie herida distribuía su relleno, con cuidado: *las marcas de la muerte no deben infectarse*.

Mientras, ella me hablaba. Yo aún era pequeña; había vuelto del colegio, preguntaba qué había de almorzar, relamía mis gracias y decía:

peces como los del verano. Por entonces hacía frío.

Y al terminar de comer nos sentábamos juntas, veíamos la televisión juntas, respirábamos juntas cada tarde.

Vivir era costumbre de las dos, y en verano me enfadaba al verla caminar orilla arriba

orilla abajo:

yo me enfadaba porque temía perderla en una ola, o que se resfriase, o simplemente estar lejos de ella unos minutos.

Al volver, me sentaba en su hamaca y me ayudaba a limpiarme la arena de los pies, a buscar mis ceras en la bolsa, a despegarme la sal y las legañas.

El invierno es, ahora, amable en esta casa. Al entrar he querido encontrarte tranquila, repitiendo tus historias, sonriendo al recordar los buenos tiempos, como siempre, siguiendo las costumbres de mi infancia.

Pero ahora no estás. Las dos ya no vivimos, y el frío me agarra por la espalda y me golpea, recuerda tantas cosas que vuelvo a tener miedo,

y mis ojos

resbalan en mis manos

húmedos

como el pez del invierno.

Elena Medel

Txori Mugariak



Zer da Iparra? Non hasten da Iparraldea? Nondik da, eta noraino? Ez da hego-iparririk nondik gabe. Eta nondik beti da zergatik. Txori mugariak, "Iparra" ideiatik abiatuta sorturiko irrati-performancea da. Irratiak, ezkututik solasten den ahots bat baino gehiago gordetzen du bere giblean. Irratiak sortzen duen musikaren, koreografiaren, literaturaren eta ikuskizunaren bidegurutze akusmatiko horretan, zaila da bereizten kontzertu bat eta dokumentari artistiko bat, elkarrizketa bat eta performance bat. Non den Iparra... Txori migrariak, joan doaz... Gu, txori mugariak gara.

IRRATI-PERFORMANCEA


HITZAK: Maialen Lujanbio
SOINUA: Xabi Erkizia
ORDUA: 23:00etan
TOKIA: Eako frontoi atzean
Uztailaren 16a (zapatua)



Txindurriak eta arrosak: nire poetikaren bila, bost emakume poetaren bitartez

HITZALDIA

HIZLARIA: Elena Medel
AURKEZLEA: Leire Bilbao
ORDUA: 11:00etan
TOKIA: Beletxen
Uztailaren 17a (domeka)




Elkarren garaiak diren bost emakumezko poeta irakurriz (Marosa di Giorgio uruguaiarra, Alda Merini italiarra, Adrienne Rich estatubatuarra, Birgitta Trotzig suediarra eta Wislawa Szymborska poloniarra), norbere poetika aztertuko dugu, idazketaren arrazoietan murgil egin, eta garai berean desberdin idazten duten andrazko hauen lanen antzei nahiz desadostasunei erreparatu.



Esperantzaz haziak

KANTALDIA:

AHOTSA: Maddi Oihenart
MUSIKA: Jeremie Garat
ORDUA: 13:00etan
TOKIA: Eako moilan
Uztailaren 17a (domeka)



Maddi Oihenartek, Jeremie Garaten laguntzaz, Itxaro Bordaren (Doluz, Out, Ogellan, Niñaño, Ikusiko...) eta Leire Bilbaoen zenbait poema (Ezinen orekan eta Besterik ezean) eskainiko dizkigu, Zuberoko kanta batzuekin batera. Kantariak berak dienez: "Poesia hauek hautatu ditut, zuzenean nihauren zerbait erazten didatelako barnetik, gizarteari, biziari lotuak direlako, neke ta ulergaitz den mundu hontatik eginak, bai ta amets, esperantzaz haziak."



HERRI-BAZKARIA

ORDUA: 15:00etan
TOKIA: Natxituko bolatokian
Uztailaren 17a (domeka)

Zer egin poema batekin



Poema bat irakurri egin daiteke, kantatu egin daiteke, dantzatu.
Arestiren poemak bai behintzat.
Poema bat jan egin daiteke, edan, erre.
Maitatu egin dezakezu, mozkortu egin zaitezke.
Arestiren poemarik gabe ere bai.
Poema bat uretan sar dezakezu, sutara bota, behegainean zapaldu, txiki-txiki egin.
Barkatu, Gabriel.

ERREZITALDI ANTZEZTUA ETA MUSIKATUA

AKTOREAK: Ramon Agirre eta Inazio Tolosa
ORDUA: 17:00etan
TOKIA: Ermintxo hotel atzeko belartzan
Uztailaren 17a (domeka)

